



# MOTIBAZIOAREN ORIENTAZIOA ETA HORREK MORALAREN GARAPENAREKIN DUEN LOTURA KIROLARI GAZTEENGAN

## DOSIERRA

*Eskola kirola kudeatzeko arloa*

*Donostia, 2003ko Martxoa*



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa

Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Departamentua  
Departamento de Cultura, Euskera, Juventud y Deportes

**Kirolarte**  
KIROLETAN  
KALITATEA

PROGRAMA PARA LA  
MEJORA DE LA  
GESTION DEPORTIVA



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa

Kultura, Euskera, Gazteria eta Kirol Departamentua  
Departamento de Cultura, Euskera, Juventud y Deportes



PROGRAMA PARA LA  
MEJORA DE LA  
GESTION DEPORTIVA

Lagun hori:

Kirolarteko eskola kiroleko kudeaketa atalak eta kirol klub eta federazioen kudeaketa atalak teknifikazio jardunaldi bat antolatu dute EHUKO GUMP.ICEBERG taldearekin batera. Jardunaldi horietan parte hartuko du GLYN ROBERTS psikologia irakaslea Noruegako Kirolaren Zientzietako Unibertsitatean.

Estimado/a amigo/a:

El Área de gestión del deporte escolar y el Área de gestión de clubes y federaciones deportivas de Kirolarte, convocan una jornada de tecnificación en colaboración con el GUMP.ICEBERG de la UPV/EHU con la participación del profesor GLYN ROBERTS, profesor de psicología de la Universidad de Ciencias del Deporte de Noruega.

**2002ko abenduaren 12ko  
teknifikazio jardunaldia**

Izena: Motibazioaren orientazioa eta horrek moralaren garapenarekin duen lotura kirolari gazteengan.

Hizlaria: Glyn Roberts.

Ordua: 19:00

Lekua: Kirol Etxea, Anoeta pasealekua, 5 behea.

Aretoa: Atano III

OHARRA: Saio teknikoan parte hartu nahi dutenek aurrez jakinaraztea eskatzen da ondorengo bide hauetakoren batetik:

- ✓ **E-mail:** [kiroletxea@kirolak.gipuzkoa.net](mailto:kiroletxea@kirolak.gipuzkoa.net)
- ✓ **Tlf:** 943-458357
- ✓ **Fax:** 943-459593

**Jornada de tecnificación del día  
12 de diciembre de 2002**

Título: La orientación motivacional y su relación con el desarrollo moral en jóvenes deportistas.

Ponente: Glyn Roberts.

Hora: 19:00


Lugar: Kirol Etxea, Paseo de Anoeta nº5 bajo.

Sala: Atano III

NOTA: Se ruega que aquellas personas que deseen asistir a la sesión técnica, confirmen su asistencia por uno de los siguientes medios:

- ✓ **E-mail:** [kiroletxea@kirolak.gipuzkoa.net](mailto:kiroletxea@kirolak.gipuzkoa.net)
- ✓ **Tlf:** 943-458357
- ✓ **Fax:** 943-459593

**Donostia, 2002ko abenduaren 3a**



**IDAZKARITZA OROKORRA**

# **Kirolean iruzurrak egiteko motibazioa**

**Glyn C. Roberts**

**Psikologia irakaslea**

**Kirol Zientziaren Unibertsitate**

**Norvegiarra**

**Oslo, Norvegia**

**Donostian egindako aurkezpena, 2002**

# **Gorputz Hezkuntzarako Akademia Amerikarra (1983)**

- **Haurren garapen morala kirol eta gorputz hezkuntzaren inguruan dauden hiru gai garrantzitsuenetako bat da.**
- **Zergatik egiten ditugu iruzurrak, eta nola ikasten dugu iruzur egiten? Zein da kirolaren zeregina prozesu horretan?**

# **Ikuspegi bat: Kirola onuragarria da**

- **Onartu egiten da kirolak bitarteko bat ematen digula lagunekin elkarlanean aritzeko, negoziatzeko eta gatazka moralei irtenbidea emateko; baita auto-kontrola garatzeko, adorea adierazteko eta hainbat bertute ikasteko ere, hala nola, zer den bidezkoa, taldearen aurrean leialtasuna azaltzea, iraunkortasuna, eta talde lana egitea (Shields & Bredemeier, 1995).**

# **Beste ikuspegi bat: Kirola ez da onuragarria**

- **Iraganean arakatuta, erraza da aurkitzea kirol esparruan, parte hartze maila guztietan, errekrutatze ilegalak, kirol ekintzak egitea errazten duten drogen erabilera, portaera oldarkorrak, eta iruzurrak. Orlick-ek (1990) iradoki du lehiaketetako emaitzetan gehiegizko enfasia jartzeak arazo moralak sortzen dituela. Egia ote da?**

# **Adibide batzuk kirolean egindako iruzurrei buruz**

- **Amona batek iruzurrak egin ditu senior garaikurra irabazteko (2000).**
- **Italiako futbol liga (2001).**
- **Galesko errugbiak jokalaria ilegalak kontratatu ditu (2000)**
- **Eskiatzaile finlandiarrak Lahti World Cup lehiaketan (2001). Haietako 6k iruzur egin zuten, medikuen oniritzia izanda!**
- **Tour de France (2001, 2002): hainbat txirrindulari (edo horien emazteak!) debekatutako substantziak erabiltzen harrapatu zituzten.**
- **2002ko Olinpiadak !!**

# **Kirolean zikin jokatzea**

**Kirolean zikin jokatzea endemiko bilakatu da!  
Kirolaren maila guztietan, dauden ordainsariak  
hain handiak dira –edo horrela hautematen dira,  
behintzat–, ezen arrakasta erdiesteko tentazioa  
oso handia baita. Horrek ere berdin balio du  
haurrentzat, eta horiek izango dira gure  
azterlanaren gaia futbol alorrean. Haurrek  
zergatik iruzur egiten duten ulertzeko,  
ingurunea ikusi behar dugu haurrek ikusten  
duten moduan!!**

# **Haurrentzako kirolak duen esanahi aldakorra**

- **Deveraux (1976): Haur jolasak gero eta eskasagoak dira**
- **Opie & Opie (1969): – Haur jolasen kultura desagertzen ari da**
- **Gaur egun, haurrak helduen kirol antolatuen haur bertsiotan jolasten dira. Lau urteko haurrentzako lehiaketak. Lau urteko haurrentzako moto-crossa !**
- **Coakley (1990): Merezki ote du haurrentzako kirol formalak antolatzeko ahaleginak egitea?**

# **Haurrentzako kirolak gaur egun duen esanahia**

- **Haurrentzako kirol antolatua ugaltu egin da azken urteotan**
- **Jokaera moralari buruzko azterketari ekin baino lehen, garrantzitsua da haurrek daukaten kirol esperientziaren esanahia ulertzea.**
- **Kirola, lorpen esparruaren ikuspegitik begiratuta, garrantzitsua da haurrentzat, batez ere mutilentzat.**

# **Kirol bat ondo egitea baloratu egiten da**

- **Kirola baloratutako alor bilakatu da (ordenagailuetako jokoen eraginez). Kirolak eragin handia dauka telebistan, eta garrantzia handia masa komunikabideetan.**
- **Ikerketa: Haurrek nahiago dute onak izan kirolean eskolan baino, eta uste dute okerragoa dela kirolean porrot egitea eskolan baino (Duda, 1981).**
- **Kirola baloratuen dagoen lorpen esparrua da.**

# Parte hartzea eta uztea

- **Kirolaren balioa gorabehera, haurrek, era kezkagarrian, kirol egiteari uzten diote 12 urte bete ondoren; eta 13 edo 14 urte dituztenen artean, % 30ek urtero uzten dio kirola egiteari. Zein dira hori gertatzearen arrazoiak?**
- **Argudio batek kirol lorpenaren esanahiarekin, eta haurrek dituzten xedeekin zerikusia dauka. Xede horiek hain garrantzitsu bihurtzen dute ingurua (lagunentzat, auto-estima, auto-balioa), ezen helburu horietara iristerik ez baldin badaukate, baztertu egiten baitute kirola. Eta, bestalde, xede horiek erdiesteko, iruzur egin dezakete!**


# Lorpenaren esanahia

- **Lorpen inguruneetan, haurrek daukaten jokaera ulertzeko –bai iruzur egitea, bai beste edozein ekintza burutzea–, kontuan hartu behar dugu kirolean lorpenak duen esanahia kirolarientzat, eta baita lortu nahi dituzten helburuak ere. Jendeak nola pentsatzen duen jakin behar dugu!**

# Azterketaren ingurune teorikoa

- **Joko zikina ulertzeko erabili den ingurune teorikoa Nicholls-en teoria sozio-kognitiboa da (1981, 1989); horrela, lorpenei lotutako jokaeran helburuek duten norabidea ikus dezakegu. Hori, orokorrean, era honetan izendatu da:**
- **Lorpenei lotutako helburuen gaineko teoria**

# Gaitasunaren barruan bi kontzeptu daude



# Egitekoan saiatzearen eta ego-an saiatzearen arteko aldea


## Egitekoan saiatzea

- Arauen araberako trebetasuna ez da garrantzitsua
- Maisutza erakusten du
- Porrotaren aurrean, saiatzen jarraitzen du
- Ahaleginak egiten ditu
- Erronka berriak hautatzen ditu
- Egitekoan interesa jartzen du

## Ego-an saiatzea

- Arauen araberako trebetasuna garrantzitsua da
- Nagusitasuna erakusten du
- Porrotaren aurrean, ez da hainbeste saiatzen
- Ez du ahalegin handirik egiten
- Erronka berriak saihesten ditu
- Irabazteko interesa dauka
- Utzi egiten du

# Motibazio prozesua, lorpen helburuen ikuspegitik



# **Gaitasunei buruzko iritziak**

**Banakoen arteko ezberdintasunaren  
aldagai bat**

# **Banakoen arteko ezberdintasunak, helburuak bideratzean**

- **Gizabanakoak egitekoa betetzera edota egoari begiratzera bideratuta daude. Gaitasunetan dauden ezberdintasunak, hainbat ingurunetan, hala nola etxe, ikastetxe edo lehenagoko kirol esperientzietan, gizartekotzearen emaitzak izan daitezke, egitekoan saiatzearen edo egoan saiatzearen bidez.**
- **Helburuak lortzeko modu batera edo bestera bideratzea ez da zerbait egonkorra, aitzitik, aldaketa jasan dezakeen eskema baita.**
- **Helburuak lortzeko modu batera edo bestera bideratuta egotea ortogonalak ez denez, pertsona bat berak maila altua edo maila baxua izan lezake bakoitzean, edo bietan aldi berean.**

# Lorpen helburuak kirolean agertzen den jokaera moralarekin lotuta egon daitezke

- **Bere egoari begiratzera bideratuta dauden gizabanakoek haien jarduera egiten dute besteen jarduerarekin erkatuak, nagusiki. Arauen arabera arrakastaz arduraturik egoteak eta gizarte erkaketak bere buruari begira dagoen pertsonaren garapen moralak galarazten dutela esaten da, eta horrek kirolean iruzur egitera bultzatzen duela.**

**Lorpen helburuak kirolean agertzen den jokaera moralarekin lotuta egon daitezke.**

- **Egitekoa betetzera bideratuta dauden gizabanakoak, ordea, gai sentitzen dira, egitekoa ikasi eta menperatzen dutenean. Egitekoa betetze horretan aurrera egitea eta egitekoa hobetzea bateragarriak dira aurrerapen moralarekin, eta horri esker, joko garbia egiten dute kirolean.**

# Lorpen helburuei eta kirolean agertzen den jokaera moralei buruzko azterlana

- **Bakoitza bere Egoan saiatzea kiroltasunik ezarekin eta iruzur egitearekin lotuta dago. Emakumeek gizonezkoek baino errazago hautematen dute jokaera horiek ez direla zilegi (Duda et al, 1991)**
- **buruari begira egoteak zerikusia dauka futboleko ekintza erasotzaileak egitearekin (Huston & Duda, 1992)**
- **Entrenatzaileak egoari begiratzera bideratutako helburuak komunikatzen baldin bazituen, neskek erasotzaileago agertzen ziren beste taldekoen aurrean (Stephens & Bredemeier, 1996)**

# Lorpen helburuei eta kirolean agertzen den jokaera moralei buruzko azterlana

- **Egoari begiratzera bideratutako Kanadako hockey jokalarri batzuek errazago onartzen zituzten jokaera oldarkorrak egoari begiratzera hain bideratuta ez zeuden jokalariek baino (Dunn & Dunn, 1999).**

# Lorpen helburuei eta kirolean agertzen den jokaera moralei buruzko azterlana

- **Kavussanu & Roberts (2001):** Saskibaloiko jokalarien artean, gizonak gehiago begiratzen zioten egoari, emakumeek baino, iritzi moralak arinagoa zeukaten, kiroltasunik eza errazago onartzen zuten, eta irainak onesten zituzten. Emakumeen artean, egoari gehiago begiratzen ziotenek jokaera moralaren maila baxuagoa zeukaten, eta errazago onartzen zituzten irainak. Zenbat eta egoari gehiago begiratu, orduan eta jokaera moralaren maila baxuago.

## (jarraipena)

- **Norvegiako Kopari buruz egin dugun azterketan (Lemyre, Roberts, Ommundsen & Treasure, in press), egoari begira zeuden kirolarien eta egitekoa betetzen saiatzen ziren jokalarien arteko aldea, kiroltasun alorrean, jokalariak egoari begiratzera bideratuta egotea edo ez egotea zen.**

## (jarraipena)

- **Taldearen arauak, askotan entrenatzaileak sortuek, iragartzen dute haurrak erasokorrak diren, eta, bestalde, zenbat eta egoari gehiago begiratu, orduan eta iruzur gehiago egiten dituzte (Giuvernau & Duda, 2000)**

## (jarraipena)

- **Kavussanu, Roberts, & Ntoumanis, in press):** Atleten taldearen giro moralaren hautemateko moduak (taldearen arauak) eragina zeukan jokabide moralean. Kirol ekintzak gauzatzera bideratutako giroa hautematea taldearen giro moralarekin lotuta zegoen.

# Nicholls (1989)

**Egoari begira egoteak adierazten  
digu jokabide onargarria  
hautematea zer den:**

- **Irabaztea garrantzitsuena bada,  
edozer egiten du jokalaria  
irabaztearren!**

# Eztabaidatzeko puntuak

- **Gaitasun helburuak lortzera bideratuta egoteak eragina dauka jokalariek irabaztea ekartzen duten jokabide onargarriak zein diren hautemateko orduan.**
- **Jokalaria egoari begiratzera bideratuta baldin badago, errazago izango du kiroltasunik gabeko jokaera izatea, eta jokaera morala ere negatiboa izango da.**

# ondorioak

- **Badirudi jokalarien lorpen helburuek eragina daukatela iruzur egiteko orduan**
- **Egoari begiratzera bideratuago baldin badaude, errazago egingo dituzte iruzurrak: “Irabaztea garrantzitsua bada, edozer egiten da irabaztearren!”**
- **Badirudi ulertu beharra daukagula lorpen helburuek zer eginkizun betetzen duten jokabide moralean eta kirol lehiaketetan pertsonak agertzen duten jokaeran.**

# **Egitekoa betetzera bideratuta egotea onuragarriagoa da, bereziki haurrentzat!**

- **Egitekoa betetzera, edo egoari begiratzera bideratuta egoteak eragina dauka arrakastaren arrazoiak zein diren hautemateko orduan, eta norberak iruzur egiten duen ala ez hautemateko orduan. Hobe izaten da, gehienetan, egitekoa betetzera bideratuta egotea, haurrentzat batik bat! Egitekoa betetzera bideratuta dauden haurrek ez dute hainbeste iruzur egiten!**

# **Baina, nola berma dezakegu haurrak egitekoa betetzera bideratuta mantentzea?**

- **Guraso, irakasle edo entrenatzaile garen aldetik, erabiltzen dugun arrakasta edo porrot irizpidea, sortzen dugun giroa, erabakigarriak dira jokabide morala eta lorpen jokabidea erdiesteko. Hori motibaziozko giro izendatu dugu.**
- **Zer dakigu motibaziozko giroari buruz?**


# Zer da motibaziozko giroa?

- **Jarduera fisikoaren inguruneak dituen ezaugarriak pertsonen arteko lehiaketa, edo gizarte erkaketa baldin bada, entrenatzaileak garrantzia emango dio irabazteari eta emaitzak lortzeari, eta publikoaren onarpena gaitasunaren froga izango da; horrelakoetan, kirol ekintza gauzatzeko giroaz hitz egiten ari gara.**
- **Ingurunearen ezaugarriak ikastea eta trebetasunak menperatzea baldin badira, ahalik eta hoberen egiten saiatuz, porrotaren aurrean berriro ekinez, eta entrenatzaileak gaitasunak era pribatuan ebaluatzen baldin baditu, orduan maisutza giroa izango dugu (Ames, 1992).**

# Zergatik da garrantzitsua giroa?

- **Helduentzat, bai giroa, bai norberak egoari begiratzeko edo egitekoa betetzeko daukan joera garrantzitsuak dira.**
- **Haurrentzat, oraindik ez baitakite zer pentsa, eta beren baloreak sortu behar baitituzte, giroak eta gurasoen eta entrenatzaileen lorpen irizpideek garrantzia ikaragarria daukate.**
- **Haurren kasuan, giroak baztertu egiten du gaitasun eragina, gaitasun eragin hori edozein delarik ere (Treasure & Roberts, 2001).**

# Motibazio prozesua, lorpen helburuen ikuspegitik



# **Haurren futbolari buruz guk egindako azterlana: Azterlanaren xedea**

**Entrenatzaileek sortutako lorpen giroaren bidez, kirolarien jokaerak, egitekoa betetzen saiatzea edo egoari begira egotea, alegia, aztertzea. Azterketa futbol jokalaria gazteek Norvegiako futbol txapelketako kopan agertzen duten jokabide moralean oinarrituta dago.**

# **Proiektuan lanean ari diren nire lankide norvegiarrak**

**Yngvar Ommundsen (NIH)**

**Blake Miller (NIH)**

**Nicholas Lemyre (NIH)**

# Norvegiako kopan oinarrituta egin dugun azterlana

- **Ommundsen, Roberts, Lemyre & Treasure (in press), Miller, Roberts, & Ommundsen (2002).**
- **Motibaziozko giroak joko zikinean eta jokaera moralean daukan eragina aztertu dugu.**
- **365 mutilek eta 340 neskek parte hartu zuten (adina: 15-16 urte)**
- **Eskarmentu handiko futbol jokalaririk**
- **Mundu osoko 22.000 mutil eta neskek parte hartu zuten; baina, partehartzaileak, gehienbat, norvegiarrak ziren.**

# Neurtzeko baliabideak

- **Kirolean hautemandako motibaziozko giroari buruzko galdetegia (PMCSQ; Seifriz, Chi, & Duda, 1992)**
- **Jokabide morala: *Gibbons et al* izenekoak erabilitako baliabidea da (1995), futboleko erabiltzeko aldatua. Lau dilema moral aurkeztu genituen; horietan, jokalariek batek iruzur egiten zuten. Eskatu genien iruzurra epaitzeko, eta haien arrazonamendu morala emateko (iruzurra egiten ote zuten beste taldea zigortzeko, berdintzeko, ondo ote zegoen, arauen barruan, edo bidezkoa ote zen), eta iruzur egiteko asmoa ote zeukaten edo iruzur egiten ote zuten adierazteko.**

# Adibide bat

- **Dilemetan, mota honetako lau egoera aurkeztu ziren: demagun partida garrantzitsu baten azken minutua dela. Kontrako taldeko jokalaria batek gola egiteko asmoa dauka, eta zu bakarrik ari zara defendatzen. Zauden lekuan egonda, jokalaria geldiarazteko modu bakarra min egin diezaiokeen ostiko bat ematea da. Erabaki behar duzu min egingo diozun, gola egin dezan galarazteko.**

# Neurtzeko baliabideak


- **Taldean dagoen giro morala:** Kideek iruzur egiten ote duten galdetzen zaie, edo entrenatzaileak zikin jokatzera bultzatzen dituen.
- **Irainei buruzko iritziak. (Bredemeier, 1985)**  
Irainak egiten ziren bi egoera aurkeztu zitzairen, eta onartzen ote zituzten galdetu zitzairen.

# Galderak


- **Jokalariek iruzur gehiago egiten zuten, entrenatzailea, emaitzei dagokienez, egoari begira zegoela uste al zuten ?**
- **Era ezberdinean jokatzeko al zuten, mutilek edo neskek egiten zituzten iruzurren aurrean?**
- **Lehenik eta behin, datuak aztertu genituen, ezberdintasunak ikusteko**

<b>Constructo</b>	<b>mutilak</b>	<b>neskak</b>	<b>Sig</b>
<b>Egitekoa</b>	<b>4.305</b>	<b>4.348</b>	<b>.01</b>
<b>Egoa</b>	<b>3.619</b>	<b>3.027</b>	<b>.05</b>
<b>Trebetasun fisikoa</b>	<b>3.937</b>	<b>3.624</b>	<b>ns</b>
<b>Iritzia</b>	<b>2.781</b>	<b>2.233</b>	<b>.001</b>
<b>Zigortzeko</b>	<b>2.702</b>	<b>2.783</b>	<b>ns</b>
<b>Berdintzeko</b>	<b>2.839</b>	<b>2.751</b>	<b>ns</b>
<b>Ondo dago</b>	<b>2.871</b>	<b>3.013</b>	<b>ns</b>
<b>Araua</b>	<b>2.853</b>	<b>3.184</b>	<b>ns</b>
<b>Bidezkoa da</b>	<b>3.027</b>	<b>3.465</b>	<b>ns</b>
<b>Arrazonamendua</b>	<b>-.101</b>	<b>.416</b>	<b>.05</b>
<b>Egiteko asmoa</b>	<b>2.690</b>	<b>2.141</b>	<b>.001</b>
<b>Jarrera</b>	<b>2.030</b>	<b>1.705</b>	<b>.001</b>
<b>Taldeko giroa</b>	<b>2.695</b>	<b>2.173</b>	<b>.001</b>
<b>Entrenatzailearen giroa</b>	<b>2.198</b>	<b>1.927</b>	<b>.001</b>
<b>Irainak (I. egoera)</b>	<b>3.041</b>	<b>2.563</b>	<b>.05</b>
<b>Irainak (II. egoera)</b>	<b>2.979</b>	<b>2.530</b>	<b>.05</b>


# Neskak: Egitekoaren maila altua, egoaren maila baxua




# Neskak: Egoaren maila altua, egitekoaren maila baxua





# Neskak: 1. eta 2. egoera



# Mutilak: Egoaren maila altua, egitekoaren maila baxua



# Neskak eta Mutilak : Egoaren maila altua, egitekoaren maila baxua



# Eztabaida

- **Genero ezberdintasunak daude. Mutilek iruzur gehiago egiten dituzte neskek baino. Hala ere, generoa kontuan hartu gabe, egitekoan saiatzea hobea da jokabide moralerako.**
- **Neskek, egitekoa betetzera bideratuta daudenean, jokaera erasokorrari egokia ez dela deritzote; eta arrazoi garrantzitsuenez galdetu zitzaienean, maila handiko arrazonamendu morala eman zuten.**
- **Neskek ez zeukaten iruzur egiteko asmorik; ez zuten iruzur egin azkeneko bost partidatan; eta ez zuten uste entrenatzaileak horretara bultzatzen zituenik.**
- **Egitekoa betetzera bideratuta, neskek maila handiko jokaera morala zeukaten, eta ez zeukaten iruzur egiteko asmorik.**

# Eztabaida

- **Egoari begiratzera bideratuta, neskek onartu egiten zuten iruzur egitea, eta arrazoi garrantzitsuenez galdetzen zitzaienean, maila baxuko arrazonamendu morala adierazten zuten.**
- **Asmoaren, jokaeraren, talde giroaren, eta entrenatzaileak iruzur egitea onartzearen arteko harremanik ez zegoen, baina neskek uste zuten iraintzea bidezkoa zela.**
- **Nesken artean, egitekoa betetzera edo egoari begiratzera bideratuta egoteak ezberdintasun handia sortzen zuen jokabide moralean!**

# Eztabaida

- **Mutilen artean, funtzio garrantzitsu bat nagusitzen zen, egoari begiratzera bideratuta egotea, alegia.**
- **Egoari begira daudenean, mutilek iruzur egitea onartzen dute, eta arrazoi nagusiaz galdetzen zitzaienean, maila baxuko arrazonamendu moralak erakusten zuten.**
- **Bazirudien mutilek iruzur egiteko asmoa zeukatela, eta azkeneko bost partidatan iruzur egin zutela.**

# Eztabaida

- **Mutilek uste zuten giro moralak iruzur egitera bultzatzen zuela. Taldekideek iruzur egiten zuten, eta entrenatzaileak onartu egiten zuen.**
- **Mutilek bidezkoa zeritzoten iraintzeari.**
- **Mutilen artean, egoari begira egoteak esan nahi zuen iruzur gehiago egitea eta iraintzea, maila baxuagoko arrazonamendu morala erakusten zuten, eta giro moralak iruzur egitera bultzatzen zuela uste zuten.**

# Ondorioak

- **Lehiakorra den kirolak irabaztea kiroltasunaren eta bidezko jokoaren gaineratik jartzen duten egoera gatazkatsuetara eramaten du. Hala ere, hori ez zaio kirolaren izaera lehiakorrari egotzi behar. Emaitzek iradokitzen dute arazoa EZ dela lehiakortasun ingurunea. Aitzitik, entrenatzaileek ezarrita, ekintzak gauzatzera (ego) eta maisutza lortzera (egitekoa) bideratuta egotean dauden ezberdintasunak dira bereiztutako arrazonamendu moralera bultzatzen dutenak.**

# Ondorioak

- **Irabaztearen eta ekintzak besteek baino hobeto gauzatearen ikuspegiak aurreiritziak indartzen ditu, eta kontrako jokalaria despertsionalizatzen bultzatzen du.**
- **Motibaziozko giroa aldatzeak eragina izan dezake atleten inplikazio mailan, edota, era ez zuzenean, eragina izan dezake giro moralaren eta lorpen helburuen aldaketan.**

# Ondorioak

- **Jokalari gazteek kiroltasunez jokatzearraronamendu moral ona edukitzea, iruzurrak prebenitzea nahi izanez gero, entrenatzaileek azpimarratu egin beharko lukete egitekoa betetzera bideratutako lorpen helburuek lehiaketetan duten garrantzia. Horretarako, jokalariai saritu beharko lituzke ahaleginak egiteagatik, jokalari guztiak kontuan hartu beharko lituzke, lehiatzeari garrantzia kendu beharko lioke. Entrenatzaileek gai izan beharko lukete arauak, ohiturak eta jokalariai aurkariak errespetatu behar direla irakasteko.**

# Ondorioak

- **Badirudi ez daukagula arazoak dituzten haurrak, arazoak dituzten entrenatzaile eta gurasoak baizik! Horrek esan nahi du kontu handia izan behar dugula haurren aurrean erabiltzen ditugun arrakasta edo porrot irizpideekin. Egitekoarekin lotutako irizpideak azpimarratzen baditugu, iruzurrak murriztuko ditugu, eta jokaera morala hobetuko dugu.**

# Zer egin dezakegu?

- **Guraso, irakasle edo entrenatzaileak garen aldetik, haurrak bultza ditzakegu egitekoan saia daitezen eta, era horretan, indartu egingo dugu egitekoa betetzera bideratzea. Izan ere, lehiaketari garrantzia ematen diogu, baina erabiltzen ditugun arrakasta eta porrot irizpideak zainduz.**
- **Maisutza giroa sortu behar dugu.**

# Entrenatzaileak zeregin erabakigarria dauka

- **Badakigu denbora eman beharko litzatekeela eta ahaleginak egin beharko liratekeela entrenatzailearentzat prestakuntzarako estrategiak eta jardunak garatzeko, era horretan, atleten artean motibaziozko giroa errazago sorbaitezake. Haurren motibazioa eta garapen psiko-soziala garatu nahi baldin baditugu, ezin dugu baztertu entrenamendu motak jokabide moralak eta iruzurra hautemateko orduan daukan eragina.**

# **Kirol politikek, gurasoek edota masa komunikabideek entrenatzaileek egindako ahalegin guztiak deusezta ditzakete!!**

- **Baita entrenatzaile ona daukagunean ere, entrenatzaileak haurren aurrean egiten dituen ahaleginak deuseztatuak izan daitezke.**
- **Entrenatzaileek egitekoan saiatze irizpideak erabil ditzakete, eta, hala ere, kirol antolakuntzak emaitzez hitz egin dezake, irabazteari eta domina kopuruari garrantzia emanda!**
- **Eta masa komunikabideak arazo izugarria izan daitezke, itxaropenak kontuan hartuz gero, atletek motibaziozko prestakuntza jasotzean.**

# **Alderdi anitz dituen teoria behar dugu**

- **Egitekoa betetzera bideratutako giroa sortzea alderdietako bat besterik ez da.**
- **Baloreak eta gaitasunak zehaztu beharra daukagu jokabide moraletara gehitzeko; eta, era berean, bestearen lekuan jartzeko beharra ere badaukagu.**
- **Joko garbia egitea eta bidezkoa dena onartzea ohikoa izan beharko litzateke bizitzan eta kirolean!**
- **Eta iruzur egitea ekuazio horren guztiaren alderdi txiki bat besterik ez da!**

# Kirolean iruzur egitea?

- **Murriztu ahal izango da!**
- **Goi mailako atleta izatea saria baldin bada, nekez gertatuko da, hala ere. Eta eguneroko adibideek ez dute horretan laguntzen!**
- **Baina, haur kirolaren esparruan, ez al du merezi iruzurrak murrizteko ahalegina egitea?**

**Nire hitzaldiaren amaierara iritsi  
gara, bai, baina lanean jarraitu  
beharko genuke iruzur egitera  
bultzatzen duten irizpideak  
murrizteko!**

**Lor dezakegu eta!**

**Eskerrik asko zuen arretagatik!!**